



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2024ko LEHENENGO LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2024ko lehenengo lauhilekoan elikagaiei buruzko 1686 jakinarazpen izan dira. Horietatik 417 alertak izan dira (%25), 704 informazio-jakinazpenak (%41,5) eta 565 mugan egin diren ukapenak (%33,5).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 28a Turkiakoak dira eta %19ak Indiakoak. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdeak **Frantzia eta Herbehereak**, biak %13arekin, %12arekin izan dira. **Afrikaren kasuan, Egipto %40,5arekin** eta azkenik, **Amerikaren kasuan EEBB** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak, %37,5arekin.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2024ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1686 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Iruzurrak	% 22
Hondakinak	% 20,5
Kutsadura biologikoa	% 19
Toxina naturalak	% 16
Kutsadura kimikoa	% 10,5
Kutsadura fisikoa	% 4,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 4
Metal astunak	% 3,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 68,5ean, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 37a eragin du. Kasu gehienetan (% 30) kakahuetea **Egipto eta EEBB**etatik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %50a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 80an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %32eko kasuetan, %44ko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarrik.

Beste salmonelei dagokienez, %14,5a *Salmonella enteritidis* dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen %69,5a eta %44eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %5,5a *Salmonella typhimurium-i*. Honen kasuan **indiolarra** izan da %55,5 kasuen denen errudun, denak europa jatorrikoak.

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes* jakinarazpenen %18a eragin ditu, esne gordinaz eragindako **GAZTAK** %33an inplikaturik egonda eta **Frantzia** jatorria izanik ia %53an.

Fitosanitarioen eta sendagaien hondakinei dagokienez, sendagaien hondakinen jakinarazpenak anekdotikoak izan dira, eta **FITOSANITARIOENAK**, berriz, % 95a. Hondakin anitzeko produktuak (hainbat hondakin lagin berean) izan dira kasuen % 47, elikagai nabarmenduenak piparrak, arrosa, fruta exotikoak eta babak izanez. Gainera, oraindik ere nabarmentzekoa da **KLORPIRIFOS**en presentzia, Europan debekatuta dagoen plagizida, jakinarazpenen % 25an. Inplikaturiko produktu gehienak **ZITRIKOAK** izan dira (mandarinak, limoiak eta laranja), eta arrosa.

Sarearen bidez jakinarazitako iruzur guztietatik, iruzurren % 36,5 debekatutako **substantziengatik** edo hainbat elikagaitan baimendu gabeko osagai berriengatik izan dira. Nabarmentzekoa da **ELIKADURA-OSAGARRIAK**, kasuen % 74arekin, online saldutakoak edo AEBetatik etorritakoak. Bestalde, horien % 19,5 **ETIKETETAN ALERGENOAK EZ AITORTZEARI** dagozkie.

